

**AGINDUA, BIGARREN LEHENDAKARIORE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU
SAILBURUARENA, EUSKAL ENPLEGU SAREKO ZERBITZU-ZORROA ARAUTZEN
DUEN DEKRETUA EGIN AURRETIK KONTSULTA PUBLIKOA EGITEKO DENA**

Enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak aurreikusi du Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa arautzen duen dekretua izapidetzeko prozedura hastea. Dekretu hori Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 25. artikuluan eta hurrengoetan dago aurreikusita.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarenak, 11. artikuluan xedatzen duenez, xedapen orokor bat idatzi aurretik, herritarren iritzia kontsulta publikoan jasoko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-oholaren bidez.

Kontsulta honako alderdi hauei buruzkoa izango da:

- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- Onartzeko beharra eta egokitasuna.
- Arauen helburuak.
- Egon daitezkeen ordezkio irtenbide erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

Horregatik, erregelamendu-xedapena egin aurreko kontsulta-izapide hori bete nahi da, herritarrek eta eragindako gainerako erakundeek aukera izan dezaten planteatzen den arauan parte hartzeko eta ekarpenak egiteko, ukitutako sektoreen artean ahalik eta parte-hartze eta adostasun handiena lortzeko.

Horregatik guztiagatik, kontsulta:

- Etorkizuneko araudi horren eraginpean egon daitezkeen erakunde publiko eta pertsona fisiko guztiei irekitzen zaie.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren web-atarian argitaratuko da.

Hogei egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundeek, herritarrek eta haien entitateek egokitze jotzen dituzten iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten. Kontsulta publikoaren izapide hori, beraz, aurreikusitako lege-eskemari jarraituz egiten da une honetan. Gainera, arau-proiektua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikulua arautzen duen hasiera-fasearen barruan.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau





EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroa arautzen duen Dekretua egin aurretik, herritarrei kontsulta egitea.

Bigarrena.- Herritarrek, hala uste badute, hogeit egun balioduneko epea izango dute ebazpen honen eranskinean azaldutako alderdiei buruzko iritzia helarazteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki- taulan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data.

MIGUEL TORRES LORENZO

Bigarren lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua



ERAZKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legeak (EAL) 25. artikuluan eta hurrengoetan arautzen du Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorria, enplegu-zerbitzuak merkatuaren beharrekin lotzeko zerbitzuen katalogo dinamiko gisa.

EELk, enplegu-politika publiko eraginkorrak bultzatzeko konpromisoan, honako zerbitzu hauek emango dituela bermatzen du, zorroan sartuta:

- a) Enplegurako orientazioa.
- b) Lanerako prestakuntza.
- c) Bitartekaritza eta kokapena.
- d) Autoenplegurako eta ekintzailatzarako aholkularitza.
- e) Pertsona, enpresa eta erakunde enplegatzaileentzako aholkularitza.
- f) Lan-merkatuari buruzko informazio aurreratua.

Dekretuaren bidez, zerbitzu horietarako sarbidea eta pertsona eta enpresa edo erakunde enplegu-emaila eskatzaileei ematen zaien prestazio zehatza arautu nahi dira.

A) EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

Dekretuaren bidez, zerbitzu-zorria osatzen duten baliabideak arautu nahi dira, halako moldez non zerbitzu horien hartzaileek, langabetuek edo landunek, haietarako sarbide bateratua eta integratua izango duten, horrela haien enplegarritasuna hobetuz eta lan duin baterako sarbidea erraztuz. Eta gauza bera zerbitzu horiek behar dituzten pertsona, enpresa eta erakunde enplegatzaileei dagokienez.

B) ONARTZEKO BEHARRA ETA AUKERA

Zerbitzu-zorria arautzen duen Dekretua onartzea beharrezkotzat eta egokitzat jotzen da, honako arrazoi hauengatik:

- Legezko agindua. 25. artikulua eta sigs. EELeke zorroaren eta hura osatzen duten zerbitzuen erregelamendu bidezko garapena aurreikusten du.
- Diru-zorria martxan jartzea. Zorroaren erregulazioak legearen aurreikuspenak benetan aplikatzea ekarriko du, hura osatzen duten zerbitzuei dagokienez. Benetako aplikazioa, oso zaila izango litzatekeena erregulazio bateratu eta sistematizaturik gabe.
- Gobernantza-eredu bat ezartzea. Zorria onartzeak enplegu-politiken berezko gobernantza-eredua ezartzen lagunduko du. Eredu horrek pertsonen



enplegagarritasunaren ikuspegi globala izango du ardatz, eta enplegagarritasun horren zerbitzura dauden prestazioak benetan aintzatestera bideratuta egongo da.

C) ARAUAREN HELBURUAK

Erregelamendu-garapen horren helburu nagusia da Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroaren erregulazio argi eta zehatza ezartzea, sare horretako kideek eta pertsona eta erakunde erabiltzaileek argi eta garbi identifikatu ahal izan ditzaten zerbitzu bakoitza eta hura emateko baldintzak. Zehatzago esanda, hau lortu nahi da:

- Zorroa osatzen duten zerbitzuetako bakoitza definitzea, barnean hartzen dituen prestazioak nola zehazten diren zehaztuz.
- Zerbitzu horiek eskuratzeko baldintzak ezartzea, eta zerbitzu horiek eskuratzen dituzten pertsonen eta erakundeen eskubideak eta betebeharrak definitzea.

C) ORDEZKO IRTENBIDE ERREGULATZAILEAK ETA EZ-ERREGULATZAILEAK.

Kontuan hartuta legearen erregelamenduzko garapenari buruzko aurreikuspenak eta komeni dela xedapen orokor bat erabiltzea, zerbitzu bakoitzerako haren edukia, irispide-eta prestazio-baldintzak zehaztuko dituen, argi dago ez dagoela benetako alternatibarik Enpleguari buruzko 15/2023 Legea garatzeko dekretu bat onartzeko. Esku hartzeko beste tresnek ez lukete bermatuko dekretuen orokortasuna eta ahalmen loteslea.